

P A K E A

Bertsoz erregutu nai det premia degun gauza,
Zeiñ gaberik oso illda arkitzen zaigu poza;
Au da bada denok deitzen dioguna Pakea,
Zeñkin dabillen ondo dierri zeiñ echea.

Ichasoko esturetan farol bat portukoa,
Begiztatzen nekatzen da askotan pillotoa;
Alašen emen Pakea gaur gabiltza billatzen,
Pobrea zeiñ aberatsa denok poztu gaitezen.

Bedeinkatua Pakea, izan bedi benetan,
Bera gabe larri gera España onetan;
Bere mantu loretsuaz arren gorde gaitzala,
Olloak bi egoakin chitochoak bezala.

Atoz, atoz bereala Erregiñik onena,
Laster baldin ezpazatoz, oso galduak gera,
Zatozala deiz gaude, belauniko umillik,
Zu gabe mundu onetan ez dalako gauz onik.

Zerutar zeran doaia jantzi zaite ostarkuz,
Zure kopeta argiak ala poztuko gaituz;
Ikustean urdintzera zerua dijoala,
Turmoi ta chimistak berriz desagertu zirala.

¡O! Ama zoragarria! ¡o! Pake doatsua!
Negarrez gaur arkitzen da pobrien echechua,

Bertako seme galantak gudara eramanik,
Gurasoak lanerako ez dutela indarrik.

Labore sail len ziranak oraiñ larreak dira,
Belarra bakar bakarrik ayetan ageri da,
Lantzeko gaur falta dira indartsuen besoak,
Eraman zituelako gerra zital gaitzoak.

Itzali zazu Pakea, gudako su ta garra,
Išilldu sutunpa eta balen chistu zakarra,
Mututu turunta soñu gaurko beldurgarriak,
Kantatzeko beren ordez zuk dituzun gloriak.

Zu zera oliba berde, guztien poztasuna,
Zure ostoen artean dakartzu osasuna;
Zu gabe dena da gaitza, gosea ta premia,
Gorrotoa, errabia, ta inpernu bizia.

Eguzkiak duenean esnatzen lorechua,
Bereala asitzen da zabaltzen kolkua;
Eta bere usai gozoz ingurua eztitzen,
Pozpozik du argia bai zayolako gustatzen.

Alašen zuk ere bada Pake erraňutsua,
Ager zazu zere musu argi zoriontsua,
Zabal zazu Espanian zure dicha ederra,
Desegiňik sekulako au bezelako gerra.

Zuk ekarri oi diguzu beti elkartasuna,
Zu zeran lekuau dago anayatasun ona,
Zuk amari biurtutzen gerratikan semea,
Besartean estutzeko bere zati maitea.

Zuk illtzen dezu plagarik gaitzoena lurrean,
Desegin etsaitasuna sartua gizartean,
Karidadea jarirrik ezdabaideen lekuau,
Zeñek dituen birtute on guztiak barruan.

Zuk eztezu bele antzik, dirudizu usoa,
 Noeri alako berri ona emandakoa,
 Zu zera gaitzik iñori egiñ eztiozuna,
 Guztientzat ¡o! Pakea! dezu dontsutasuna.

Zu zera beko zerua, guretzako lurrean,
 Aingeruak kantatua Kristo jayo zanean,
 Jaungoikoaz urrena zu guk zaitugu bearren,
 Atoz, atoz Pake ona, ainbat lasterren, Amen.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

VIDA DE CAMPO



Con la escopeta al hombro,
 detrás los perros,
 por los campos cercanos
 se va el labriegos,
 y á veces caza,
 y á veces filosofa,
 y á veces canta.

Al declinar la tarde
 vuelve á la aldea
 pensando que sus viñas
 ya amarillean,
 y ebrio de gozo,
 «¡Voy á tener, exclama,
 ríos de mosto!»

Allá abajo en el llano,
 de sus hogares
 en blancas nubecillas
 el humo sale,
 y en gozo puro
 su corazón inundan
 amores y humo.

Y oyendo el santo toque
 de una campana,
 se descubre la frente
 del sol tostada,
 y á un tiempo piensa
 en Dios y su familia,
 que Dios prospera.

ANTONIO DE TRUEBA.

